



## 07 MARTXOA

Osteguna  
**01**

Ostirala  
**02**

Larunbata  
**03**

Igandea  
**04**

Astelehena  
**05**

Asteartea  
**06**

Asteazkena  
**07**

Osteguna  
**08**

Ostirala  
**09**

Larunbata  
**10**



Igandea  
**11**

Astelehena  
**12**

Asteartea  
**13**

Asteazkena  
**14**

Osteguna  
**15**

Ostirala  
**16**

Larunbata  
**17**

Igandea  
**18**

Larunbata  
**31**

Ostirala  
**30**

Osteguna  
**29**

Asteazkena  
**28**

Asteartea  
**27**

Astelehena  
**26**

Igandea  
**25**

Larunbata  
**24**

Ostirala  
**23**

Osteguna  
**22**

Asteazkena  
**21**

Asteartea  
**20**

Astelehena  
**19**

Igandea  
**18**

## □ □ 12 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO DIRU-LAGUNTZATAN

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurreko urtean baino %10,35 gehiago zuzenduko du diru-laguntzen deialdietara

**H**izkuntza Politikarako Sailburuordetzak bost deialdi aurkeztu ditu 2007an, eta guztira 12.075.000 euro banatzea ikusi du aurrez. Eguneroko bizitzan euskara indartzeko eta zabaltzeko deialdiak dira hauek. Ez da, ordea, Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera areagotzeko xedez inbertitzen duen diru-laguntza bakarra; izan ere, sailez sail hainbat egitasmo eta plan babesten dira eta.

Ondoren atalez atal aipatuko ditugun diru-laguntzez gain, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak beste hainbat baliabide ekonomiko ere zuzentzen ditu euskararen alde, erakundeekin sinatutako hitzarmenen bitartez.

Guztira, bost deialdi egingo dira, hurrengo arlo hauetarako: gizarte bizitzako eremua, esparru sozioekonomikoa, hedabideak, udalak eta toki entitateak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Denera, 12.075.000 euro banatuko dira. Hala eta guztiz ere, aurten lehenengoz Ipar Euskal Herrian Euskararen Erakunde Publikoarekin batera kaleratuko dute diru-laguntzen deialdia, Kultura Sailak erakunde horrekin sinatutako hitzarmenaren barruan.

## GIZARTE-BIZITZAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO LAGUNTZAK □ □

**H**izkuntza Politikarako Sailburuordetzak milioi bat berrehun eta berrogeita hamar mila euro (1.250.000 €) bideratuko ditu esparru ez formalean euskararen erabilera sustatze alde-  
ra burututako egitasmoetara: aisialdia, kirol ekintzak, euskararen ondareari buruzko informazioa hedatzea, euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteak omentzea edo euskarazko irakur-zaletasuna sustatzea, adibidez.

Joan den urtekoaren ondoan, %5,04ko igoera izango du aurtengo deialdiak. 2006an 208 egitasmo lagundu ziren diruz.



## ESPARRU SOZIOEKONOMIKO PRIBATURAKO LAGUNTZAK

**D**eialdiaren helburua eguneroko jardunean euskararen erabilera eta presentzia areagotu nahi duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde pribatuei laguntza ematea da. HPSk enpresa eta establezimendu guztiei egingen die gonbita, beren egoera aztertzeko eta zer ardatzetatik egin nahi duten lan planteatzeko. Horretarako eta enpresak euskarari begira dituen helburuak bete ahal izateko, Sailburuordetzak hainbat zerbitzutarako laguntzak planteatu ditu: euskararen erabilera lehena plana eta dagokion kudeaketa plana disenatzea; beharrezko diren itzulpenak edota langileen lanposturako hizkuntza-trebakuntza; lana euskeraz egiteko softwareak egokitzea eta plangintzaren jarraipena zein ebaluazioa.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak alor estrategikotzat jotzen du lan-mundua, eta legealdiaren barruan arreta berezia eman nahi dio jardun-esparru honi. Horren lekuko, azken bi urteotan helburu honetarako jarritako baliabideak bikoiztu izana.

Arlo honetarako HPSk bi milioi eta hirurehun mila euro (2.300.000 €) bideratu ditu 2007an; 2006an baino %16 baino gehiago.



## EUSKARA HEDABIDEETAN **03**

**D**eialdi honen bidez, euskarazko hedabideak sendotzea, garatzea eta normalizatzea helburu duten egitasmoak diruz lagundu nahi dira, betiere euskararen presentzia hedabideetan handitzera begira.

Bost milioi bostehun eta hirurogeita hamabost mila euro (5.575.000 €) zuzenduko ditu HPSk hedabideen laguntzetara, iaz baino %17 gehiago. Euskara hutsez egunero zabaltzen den prentsa, aldizkariak, irrati eta telebistak, Internet bidezko hedabideak, berri-agentziak eta nagusiki gaztelania erabiltzen duten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak izango dira diru-laguntzak jasotzeko hautagai.

2006an 101 egitasmo lagundu ziren diruz deialdi honen bitartez.

## TOKI-ENTITATEETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO LAGUNTZAK **04**



**H**izkuntza normalizatzea beren egitekoen artean duten Euskal Autonomia Erkidegoko toki entitateei (udalak, mankomunitateak...) eta beren menpeko erakunde autonomiadunei (euskara patronatuak...) zuzendutako deialdia da honako hau.

Laguntza-gaiak hiru multzotan bereizten ditu deialdiak: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartua duten eta 2007ko kudeaketa-plana gauzatzeko laguntza eskatu duten toki-entitateak, EBPNa abian jarri nahi dutenak eta, azkenik, toki-entitatearen administrazioan hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plana abian jarri nahi dutenak.

Kultura Sailak 2007ko deialdian guztira milioi bat eta seiehun mila euro (1.600.000 €) jarri ditu laguntza-deialdien atal honetan.



## INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT) **05**

**H**PSren ustez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) esparruan euskararen presentzia areagotzea garrantzi handikoa da hizkuntzaren normalizatzearen ikuspegitik.

Deialdi honekin, IKTen bidez euskara sustatzea, garatzea edota normalizatzea helburu duten egitasmoak lagundu nahi dira diruz. Atal honetara bideratu den diru-kopurua milioi bat hirurehun eta berrogeita hamar mila (1.350.000,00) eurokoa da. Joan den urtekoaren ondoan, %68,75eko igoera izan du aurtengo deialdiak.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskararen erabilera areagotzeko lanean diharduten erakunde pribatuei zuzenduta dago deialdi hau, honako hauek laguntzeko: euskarazko atariak eta web guneak, eta parte-hartze eta komunikaziorako edukiak egitea eta komunitate birtualak sustatzea helburu duten egitasmoak; hizkuntzen teknologietan euskara integratzeko egitasmoak (ahotsaren ezagutzan oinarritutako aplikazioak, hiztegi elektronikoak, lematizatzaileak, hainbat lanabes); softwarea euskaraz sortzea edota lokalizatzea helburu duten egitasmoak; bizi-kalitate eta aisialdiko edukiak (jolasak, erabilpen handiko zerbitzuak, ez-gaituentzat egokiturikoak...) edota lan mundurako euskarazko edukiak.



## LABURBILDUZ: 2007KO DIRU-LAGUNTZAK

<b>GIZARTE-BIZITZA</b> .....	<b>1.250.000 €</b>
<b>ESPARRU SOZIOEKONOMIKOA</b> .....	<b>2.300.000 €</b>
<b>TOKI-ENTITATEAK</b> .....	<b>5.575.000 €</b>
<b>HEDABIDEAK</b> .....	<b>1.600.000 €</b>
<b>IKT</b> .....	<b>1.350.000 €</b>
<b>GUZTIRA</b> .....	<b>12.075.000 euro</b>



## MIREN DOBARAN, EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARI BERRIA



Miren Dobaran,  
Euskara Sustatzeko zuzendari berria

**M**iren Dobaran Urrutia (Berango, 1970), Euskal Filologian lizentziatua eta Itzulpen masterra egina, euskara teknikaria da Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean. Euskaltegi-tako irakasle eta itzultzaile, bide luzea egin du kargu publikoetan. Izan ere, Berango bere herriko zinegotzi izan ondoren, 2000tik bertako alkate da. Era berean, Behar-gintzako (Uribe Kostako enplegu sustapenerako erakunde) presidentea ere bada eta, EUDEleko kide. Azken erakunde horretan bi ardura dauzka; alde batetik, Euskara Arloarena, eta, bestetik, Gizon eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako Arloarena.

**Euskara Sustatzeko zuzendari berria zara. Lehenik eta behin, zorionak. Zer asmorekin ekingo diozu jarduera berriari?**

Animo osoarekin. Niretzat erronka berria da hau. Bete-betean sartzen da nire arloan kargu hau, Filologian lizentziatua naizelako, eta, hala, ilusioz helduko diot, euskararekin zerikusia duen beste lan batean aritzeagatik. Beraz, saiatuko naiz nire lana ahalik eta ondoen egiten.

**Zeintzuk izango dira zure egitekoak?**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan ni Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaz arduratuko naiz. Horrek esan nahi du, lehenbizi egitekoa, otsailetik indarrean dauden diru-laguntzetara aurkeztutako proiektuak kudeatzea izango dela. Laguntzok lehenbizi seihilekoan ebazteko konpromisoa hartu genuen eta horretan murgilduko naiz. Horrekin batera, euskararen erabilera aldeko beste hainbat egiteko izango ditut.

**Zure ustez zeintzuk dira oro har euskararen behar nagusiak gaur egun?**

Beharrak era askotakoak dira eta herri erakundeek beharrok asetzeko behar diren bitartekoak jarri behar dituzte. Baina egiteko nagusia gizarteak berak euskaraz bizitzeko konpromisoa hartzea da, hori gabe ez baita helbururik lortuko. Beraz, hizkuntza bizi, erabilgarri, elkarbizitarako laguntzaile izango dena aurkeztu eta jendeari mezu positiboak zabaltzea da gure eginbehar garrantzitsuenetako bat.



## IPAR EUSKAL HERRIAN EUSKARA INDARTZEKO AKORDIOA SINATU DU HPS-K

Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskararen erabilera bermatzeko eta garatzeko nahia azaldu dute

**I**par Euskal Herrian euskara indartzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak (Frantziako Estatuak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Baiona-Angelu-Miarritze Elkargoak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak osatua) mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmen garrantzitsua sinatu dute hizkuntza politika gaietan. Hitzarmenaren helburua Ipar Euskal Herrian euskara indartzeko harreman instituzional egonkorra sortzea da.



## IPAR EUSKAL HERRIAN EUSKARAREN ERABILERA BABESTEA

Sinatzaileek, egun abian dauden edo etorkizunean martxan jarriko dituzten ekimenak bermatzeko elkarren arteko harremana indartu behar dela ikusiz, bien interesekoa den lankidetzak garatzea erabaki dute. Hala, euskara bultzatzeko asmoz, mugaz gaindiko politika garatzeko tresna izateko nahiarekin izenpetu dute akordio hau. Horretarako, bi lurraldeak lotzen dituen hizkuntza babesteko eta garatzeko asmoa azaldu dute bi aldeek, betiere lurraldeetako ezaugarriak errespetatuz. Hizkuntza-lankidetzak honek lurralde bakoitzeko marko legala kontuan izango du eta erakundeek batak bestearen ezaugarri legalak eta juridikoak errespetatuko dituzte.

Bi erakundeek hurrengo esparruetan egingo dute lan elkarrekin:

**1.- Euskararen transmisioa:** edozer adinetako euskal hiztunen kopurua handitzea nahi dute eta, hala, azken urteetako inkesta soziolinguistikoei agerian jarritako gainbehera arintzen laguntzea.

**2.- Euskararen presentzia eta erabilera:** euskararen presentzia bultzatuko da bititza sozial publikoko eta pribatuko sektore guztietan. Horretarako, honako helburu hauek jorratuko dira:  
-ahozko eta ikusizko presentzia areagotzea.  
-hiztunek euskara erabiltzeko hazten joango den dinamika sortzea.  
-hizkuntzak funtzio komunikatiboa berreskuratzea edo hartzea.

**3.- Hizkuntzaren kalitatea:** hizkuntzaren kalitatea babestu eta areagotuko da, ahazko zein idatzizko euskarari dagokionez, erabilera publikoko eta pribatuko eremu guztietan.

**4.- Motibazioa:** helburua hizkuntzaren interesa piztea da, gizartearen batasuna indartzea.

Gainera, euskararen garapen soziolinguistikoa ezagutzeko, zenbait ikerketa-ildo bultzatuko dituzte eta jarriko dituzte abian, esaterako, Euskal Herriko "IV. Inkesta Soziolinguistikoa". Euskararen presentziari zein erabilera buruzko adierazleak definituko dituzte eta datu horien gaineko informazioa trukatzeko bultzatuko dute.

Bestalde, kooperazio funtsa sortuko dute, hitzarmenean zehaztutakoari jarraiki, bi aldeek elkarpenak jasoko ditu eta Jarraipen Batzorde batek koordinatuko du. Diru-laguntzak eta kooperazio funtsa ere bien arteko akordio bidez kudeatuko dituzte.

Sinatu den akordioa 2007tik 2010 arte egongo da indarrean eta, bi aldeek hala erabakitzen badute, berriro edo luzatu ahal izango dute. Joan den otsailaren 7an sinatu zuten Kultura sailburu Miren Azkaratek eta Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea Max Brisson-ek hitzarmen hau. Aurkezpen ekitaldian, Euskararen Erakunde Publikoaren osatzen duten instituzioetako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunak izan ziren, besteak beste, Patxi Baztarrika sailburordea bera ere.



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística